

PARQUE TECNOLÓGICO-TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A. ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ESTATUTUA

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua Xedea

Estatutuaren xedea Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren jarduera-printzipioak, antolaketa eta funtzionamendurako oinarritzko arauak eta kideen jokaera-arauak ezartzea da. Hori guztia, kudeaketa eraginkorragoa lortzeko helburuarekin.

2. artikulua Aplikazio-eremua

Sozietateren Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsona guztiei aplikatuko zaie Estatutua eta derrigorrez bete beharko dute, beren izaera espezifikoarekin bateragarriak diren heinean, Sozietatean zuzendaritza karguak betetzen dituzten pertsona horiek ere, nahiz eta kontseilari ez izan, fideltasun, leialtasun eta sekretu betebeharrei dagozkien alderdi horietan guztietan.

Halaber, berez eta edozein arrazoi dela bide, nabaritasun handiago edo txikiagorekin administrazioan erantzukizunak dituztenei aplikatuko zaie Estatutua.

3. artikulua Indarrean sartzea eta aldaketak

Estatutua Administrazio Kontseiluak onesten duen datan sartuko da indarrean.

Administrazio Kontseiluari dagokio Estatutuan aldaketak sartzea, karguan dagoen Presidentetzak edo Kontseiluko hiru kidek hala eskatuta, aldaketok beharrezko edo egoki bihurtzen dituzten inguruabarrak daudela uste badute.

Estatutua aldatzeko eskaera oro arrazoitu beharko da eta, horretarako, eskatzaileek proposamen-testuarekin batera proposatzen den aldaketaren arrazoiak eta norainokoa justifikatzen duen txostena aurkeztu beharko dute.

Estatutua aldatzeko proposamenaren gainean hausnartu eta erabakiak hartu beharko duen Kontseiluaren bilerarako deialdia hamar egun natural lehenago egingo da, gutxienez. Deialdiari proposamen-testua eta justifikazio-txostena erantsi beharko zaizkio.

4. artikulua Interpretazioa

Estatutua aplikagarri diren legezko eta estatutu-arauei jarraiki interpretatu beharko da.



Gobernu korporatiboari dagokionez, informazio, gardentasun eta segurtasunerako oinarritzko betebeharrak nahitaezko printzipio izango dira arau hauek interpretatzeko.

Administrazio Kontseiluari dagokio, gehiengoz, Estatutua aplikatzearen eta interpretatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantzak edo desadostasunak argitzea.

Legea eta Estatutu Sozialak nagusituko dira, baldin eta Estatutuan xedatutakoarekin kontraesanik badago.

5. artikulua Hedapena

Kontseilariak eta Sozietateko goi-zuzendaritzako karguak dituzten pertsonak, aplikagarri zaizkien alderdi horiei dagokienez, Estatutua ezagutu, bete eta betearazi beharko dute. Horretarako, Kontseiluko idazkariak Estatutuaren ale bat emango die izendatuak edo, kasuaren arabera, kontratatuak diren unean.

Estatutua eta, hala badagokio, bertan egindako aldaketak, Sozietatearen web orrialdean argitaratuko dira.

II. KAPITULUA KONTSEILUAREN OSAERA

6. artikulua Osaketa

Akziodunen Batzar Nagusiak, indarrean dauden legezko eta estatutu-aginduei jarraiki, Administrazio Kontseiluak izango dituen kide kopurua ezarriko du, bazkideek hala proposatuta.

Inguruabarrek hala aholkatzen dutenean, bazkideek Batzar Nagusian proposatuko dute Kontseiluan kontseilari independenteak egotea.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez indarrean dagoen legeriari jarriki, bazkideek Batzar Nagusian proposatuko dute Kontseiluan emakume eta gizon kopurua orekatua izatea.

Artikulu honetan xedatutakoa ez da oztopo izango legez akziodunei aitortzen zaien ordezkaritza proportzionalaren eskubidea betetzeko.

III. KAPITULUA KONTSEILUAREN ESTRUKTURA

7. artikulua Kontseiluaren Presidentetza

Administrazio Kontseiluak presidentea aukeratuko du osatzen duten pertsonen artean.

Presidenteak ahalmena du Administrazio Kontseiluaren ohiko deialdia egiteko, bileren gaitzerrenda osatzeko eta eztabaidak bideratzeko. Hala ere, presidenteak Kontseilua bildu beharko du hura osatzen duten pertsonen heren batek hala eskatzen badu.

Presidenteak ondoko erantzukizunak bere egingo ditu:

- Kontseiluko kide guztiak bileretara bertara daitezen saiatzea; horretarako, Estatutu honetan xedatzen den moduan eta epeetan bidaliko dira deialdiak.
- Kontseilariren bat Kontseilura bertaratzen ez denean horren zioak egiaztatzea, ez bertaratzea errepikatzen denean.
- Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzea, ebaluaziotik eratorzen diren hobetze-proposamenak martxan jartzea, hala dagokionean, edo hautemandako eraginkortasunik eza zuzentzea.

8. artikulua Kontseiluaren Presidenteordetza

Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonen artean presidenteorde bat baino gehiago izendatu ahalko da. Horiek presidentea ordezkatzeko dute honek ezin badu edo bertaratu ez bada, eta oro har, Kontseiluak edo presidenteak berak egokitzen hartzen dituen funtzioak edo eskudantziak bere gain hartuko dituzte kasu guztietan.

Presidenteorde bat baino gehiago badago, izendatzerakoan Kontseiluak berak adierazitako ordenan gauzatuko dituzte beren funtzioak.

9. artikulua Kontseiluaren Idazkaritza

Administrazio Kontseiluak idazkari bat izendatuko du, kontseilaria zertan izan behar ez dena.

Idazkariak presidentea lagunduko du bere zereginetan eta kontseilariei behar dituzten aholkuak eta informazioa emango dizkie; dokumentazio soziala gordeko du; bilkuren bilakaera akta-liburuetan islatuko du behar den moduan, eta hitzarmen sozialak egiaztatuko ditu.

Idazkariak, nolana ere, bermatuko du helburu horretarako Administrazio Kontseiluaren barne-funtzionamendua arautzen duten funtzionamendurako arauak egoki aplikatzen eta prozedurak egoki garatzen direla.

Akten idazketa eta sinadura prozesuaren garapen egokia hartuko du bere gain idazkariak.

Idazkariak Sozietatearen dokumentazioa eta liburu ofizialak gordetzeari buruz indarrean dauden arauak aplikatzen dituela kontrolatzen duen prozesua ezarriko da eta barne-auditoretzaren emaitza erantzukizuna duen gobernuaren txostenean jasoko da.



10. artikulua Kontseiluaren Idazkariordetza

Administrazio Kontseiluak idazkariorde bat izendatu ahalko du, kontseilari zertan izan behar ez dena, eta Kontseiluko idazkaria ordezkaturako du funtzioak betetzeari dagokionez, hark ezin badu edo bertaratu ez bada.

11. artikulua Kontseilari delegatua

Kontseiluak kontseilari delegatu bat edo gehiago izendatu ahalko ditu, haiei eskuordetzen zaizkien eskumenak bana-banaka edo legez eta estatutuei jarraiki eskuorde daitezkeen eskumen guztiak eskuordetzen direla aipatuz.

Kontseilari delegatu bat baino gehiago badago adierazi beharko da zein diren modu solidarioan eta modu elkartuan egiten diren ahalmenak edo, hala badagokion, guztiak edo batzuk modu batean edo bestean egin behar diren.

12. artikulua Batzorde Betearazleak

Edozein kontseilariri bere kontura eskuordetzen zaizkien ahalmenen kaltetan gabe, Administrazio Kontseiluak berriaz eskuordetzen zaizkien ahalmenak izango dituzten Batzorde Betearazleak eratu ahalko ditu.

Administrazio Kontseiluak Batzordeetako kide kopurua, beren izendapena eta kargutik kentzea eta, oro har, Batzordeen erregulazioa zehaztuko ditu.

Batzorde Betearazleen bileretan jorrotutako gai eta hartutako erabakien berri emango zaio Kontseiluari.

Kontseiluak eraturako batzorde guztiak beren bilkuren aktak idatziko dituzte Administrazio Kontseiluak jakinarazitako terminoei jarraiki.

IV. KAPITULUA KONTSEILUAREN KOMITEAK

13. artikulua Administrazio Kontseiluaren Batzorde Operatiboak

Edozein kontseilariri bere kontura eskuordetzen zaizkien ahalmenen eta erabakiak hartzeko ahalmen orokorrak dituen batzorde betearazlea eratzeko duen ahalmenen kaltetan gabe, Kontseiluak ordezkari batzordeak era ditzake, jarduera-arlo espezifiko edo bestelako kontsulta organoen arabera.

Administrazio Kontseiluko presidenteak izendatuko du idazkaria. Presidenteak deialdia egin ondoren bilduko dira Batzordeak. Bereziki aurreikusten ez denari dagokionez, Estatutu Sozialek eta Estatutuak Kontseiluari buruz ezarritako funtzionamendu-arauak aplikatuko dira, batzorde horien izaera eta funtzioarekin bateragarriak badira.



Kontseiluak eraturako edozein batzordek bere bilkuren aktak idatziko ditu Administrazio Kontseiluak jakinarazitako terminoei jarraiki.

V. KAPITULUA KONTSEILUAREN FUNTZIOAK

14. artikulua Kontseiluaren eskumenak

Batzar Nagusien eskumenekoak diren gaietan salbu, Administrazio Kontseilua da Sozietatearen erabaki, kontrol eta ordezkaritza organo gorena.

Kontseiluaren politika Sozietatearen kudeaketa arrunta organo betearazleei eta zuzendaritzataldeari eskuordetzea da, bai eta bere jarduera gainbegiratze-funtzio orokorrean biltzea ere.

Ezingo dira eskuordetu Kontseiluarentzako legez edo estatutuei jarraiki erreserbatutako ahalmenak, ez eta gainbegiratze-funtzio orokorra modu arduratsuan gauzatzeko beharrezkoak diren horiek ere.

Estatutu Sozialetan ematen zaizkion ahalmenez gain, Administrazio Kontseiluak ondokoaren erantzukizuna hartuko du:

.- Sozietatearen Plan Estrategikoa onestea eta, aldian behin, bere garapen eta aplikazio eraginkorraren maila egiaztatzea.

.- Urteko Kudeaketa Plana onestea, aurrekontuen proposamena barne hartuko lukeena, eta bere egikaritzeari buruzko ebaluazio partzialak egitea.

15. artikulua Enpresaren egoerari eta jarduera garatzen duen inguruari buruzko informazioa

Kontseiluaren bileren gai-zerrendan egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko puntua jasoko da eta, gutxienez, urtean behin koiuntura ekonomiko orokorraren eta euskal sektore ekonomiko garrantzitsuenen informazio xehatua ere bai.

16. artikulua Inbertsioak egiteko erabakiak hartzeak duen eragin soziala eta ekonomikoa

Kontseiluak onesten dituen inbertsio-memoretan horien eragin ekonomiko eta sozialari buruzko analisisa jasoko da, dagokion bileraren akta eta alderdi bakoitzaren gainean Kontseiluak egiten duen balorazioa islatuz.

IV. KAPITULUA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

17. artikulua Kontseiluaren bilerak

Administrazio Kontseiluak ohiko bi bilkura egingo ditu derrigorrez, gutxienez, urtean lau aldiz hiruhileko bakoitza amaitutakoan edo hurrengoaren hasieran.

Halaber, Kontseilua ohiz kanpo bilduko da presidenteak Sozietatearen funtzionamendu onerako egokia dela irizten duen guztietan, eta Kontseilua osatzen duten heren batek hala eskatzen duenean.

Presidenteak, idazkariak edo idazkariordeak, presidentearen aginduz, ohiko saioen deialdia egingo du faxez, telegramaz edo posta elektronikoz.

Deialdia **gutxienez egutegiko hamar egun lehenago** egingo da, gutunez bada, edo egutegiko zazpi egun lehenago, posta elektronikoz bada, sailburu bakoitzak horretarako izendatutako helbidera.

Kontseiluaren ohizko kanpoko bilkuretarako deialdia telefonoz egin ahal izango da, gutxienez 48 ordu lehenago, eta ez dira aurreko paragrafoan adierazitako epea eta gainontzeko baldintzak aplikatuko presidentearen iritziz inguruabarrek hala aholkatzen edo justifikatzen dutenean.

Administrazio Kontseiluaren bilkurak normalean egoitza sozialean egingo dira, baina presidenteak deialdian zehazten duen beste lekuren batean ere egin daitezke.

Aldez aurretik deialdia egin gabe Kontseilua bildu ahal izango da, behin Kontseilua osatzen duten pertsona guztiak bertaratu direnean edo ordezkatuta daudenean, aho batez bilera egitea onartzen badute.

Kontseiluan hitzarmenak idatziz eta bilerarik egin gabe onesteko, ezin da kontseilarietako bat ere ez prozeduraren kontra egon.

Bilera bakoitzerako deialdian bilerarako aurreikusten den gutxi gorabeherako denbora adieraziko da. Nahikoa izan behar du gai-zerrendako gaiak jorratzeko, behar adina sakonduz, eta galde-eskeei ere denbora gehigarria eskainiko zaie.

Urtean behin, Kontseiluak kideei inkesta bat egingo die haren lanen kudeaketa eta kalitatea ebalua ditzaten. Era berean, Kontseiluak urtero gobernu korporatiboari buruzko txostena egingo du eta Batzar Nagusiari helaraziko dio. Azken horrek Sozietatearen organoen funtzionamendua ebaluatuko du.

18. artikulua Bileren garapena

Kontseilua behar den moduan eratuta geratuko da, gutxienez kontseilua osatzen duten pertsonen erdia gehi bat bertarutzen direnean edo ordezkatuta daudenean.

Kontseilariak Kontseiluaren bileretara joan beharko dute, eta joan ezin direnean beste kontseilari batek ordezkaria ditzan saiaturako dira. Ordezkaritza idatziz emango da eta, hala dagokionean, behar diren jarraibideak jasoko dira bertan. Presidenteak, zalantzarik balego, bilerara bertaratu ez diren kontseilariak emandako ordezkariak baliozkotasuna erabakiko du.

Presidenteak eztabaida antolatuko du, Kontseilari guztiek organoaren gogoetetan parte hartu dezaten saiatuko da eta, gaiak nahikoa eztabaidatu direla uste duenean, bozkatzeko aginduko du.

Legeak, Sozietatearen Estatutuek edo Kontseiluaren Estatutuak gehiengo indartua eskatzen duten kasuetan salbu, bilerara bertaratutako edo ordezkatuta dauden kontseilarien gehiengo absolutuarekin adostuko dira hitzarmenak. Berdinketa egonez gero, presidenteak kalitatezko botoa izango du.

Bertaratu diren edo ordezkatuta dauden kontseilariak boto bana izango dute.

19. artikulua Kontseiluaren aktak

Idazkariak egingo du Administrazio Kontseiluaren bileraren akta; eta idazkaria ez badago, izendatutako idazkariordeak egingo du. Bietako inor ez badago, kontseilari gazteenak idatziko du akta.

Kontseiluak berak onetsiko du akta bilera amaitutakoan edo hurrengo bileran.

VII. KAPITULUA KONTSEILARIAK IZENDATZEA ETA KARGUTIK KENTZEA

20. artikulua Kontseilariak izendatzea

Batzar Nagusiak kontseilariak izendatu edo berriz aukeratuko ditu, Sozietate Anonimoei buruzko Legean –Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretu bidez onetsitako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bateginean onetsia– eta Sozietatearen Estatutuetan xedatutakoari jarraiki.

Idazkariak kontseilari berriei jakinaraziko dizkie enpresaren alderdirik garrantzitsuenak, Kontseiluak jorratutako gairik esanguratsuenak, Kontseiluaren Estatutua eta bileren funtzionamendurako mekanismoak.

21. artikulua Karguaren iraupena

Estatutu Sozialetan ezarritako epean beteko dute beren kargua kontseilariak eta, epe hori bukatutakoan, iraupen bereko edo gutxiagoko aldietarako berriz aukeratu ahalko dira.

Kooptazioz izendatutako kontseilariak beren kargua beteko dute, Batzar Nagusiak lehenengo bilera egiten duen datara arte.

22. artikulua Kontseilariak kargua uztea

Kontseilariak kargua utziko dute izendatuak izan ziren epealdia igarotzen denean edo Batzar Nagusiak, legez eta estatutua betez eman zaizkion eskudantziei jarraiki, hala erabakitzen duenean.

Kontseilariak Administrazio Kontseiluaren esku utziko dute beren kargua eta, hark egokitzat jotzen badu, dagokion dimisioa formalizatu beharko dute ondoko kasuetan:

- a. Legez aurreikusitako bateraezintasun- edo debeku-kasu bat betetzen denean.
- b. Kontseilari gisa dituzten betebeharrak hausten dituztenean.
- c. Kontseiluan jarraitzeak Sozietatearen interesak arriskuan jar ditzakeenean.

VIII. KAPITULUA

KONTSEILARIAREN BETEBEHARRAK (DEONTOLOGIA-KODEA)

23. artikulua Jokaera-irizpideak

Administrazio Kontseiluak uneoro ondoko irizpideak jarraitu beharko ditu:

- a. Xede soziala betetzea
- b. Sozietatearen bideragarritasuna defendatzea
- c. Sozietatearen balioa areagotzea

Hori guztia gauzatu beharko da erabilgarri dauden baliabideen kudeaketa optimizatuz, langile, hornitzaile eta finantzariekin hitzartutako kontratu guztiak fede onez betez eta, oro har, Sozietatea modu arduratsuan zuzentzeko berezko betebeharrak etikoak betez.

Antolaketa korporatiboaren esparruan, Kontseiluak behar diren neurriak hartuko ditu Sozietatea Kontseiluaren gainbegiratze eraginkorraren pean dagoela bermatzeko.

24. artikulua Kontseilariaren betebeharrak orokorrak

Kontseiluaren funtzioa Sozietatearen kudeaketa orientatzea eta kontrolatzea da, balioaren sorrera maximizatze aldera.

Bere funtzioak betetzean, kontseilariak fede onez eta enpresari ordenatu baten arduraz jokatu du, ordezkeri leiala izango da, eta Legeak ezarritako eginbeharrak beteko ditu Sozietatearen interesak zainduz.

Legeak ezarritako betebeharrak guztiez gain, Kontseilariak ondoko hauek bete beharko ditu, bereziki:

- a. Beharrezko denbora eta ahaleginak eskaintzea, Sozietatearen administrazioak planteatzen dituen gaiak erregulartasunez jarraitzeko.
- b. Kontseiluaren bileretara bertaratzea konpromiso pertsonala bailitzan; eta gogoetetan aktiboki parte hartzea, erabakiak hartzerako orduan bere irizpideak modu eraginkorrean lagun dezan.
- c. Administrazio Kontseiluak agintzen dion eta bere ardura-konpromisoaren baitan, zentzuzko modu batean, dagoen edozein zeregin espezifiko egitea.
- d. Sozietatearen kudeaketari dagokionez edozein irregulartasunaren berri baldin badu, irregulartasun horiek ikertzea eta edozein arrisku-egoera kontuan hartzea.
- e. Oro har, legeek eta Estatutuek ezarritako betebeharrak betetzea, Sozietatearen interesarekiko fideltasunarekin. Legearen, Estatutu sozialen edo Sozietatearen interesen kontrako hitzarmenen aurka jarri beharko da; eta, aipatu interesa babesteko, egoki deritzonean bere kontrakotasuna aktan jasotzea eskatu beharko du.

25. artikulua Isilpekotasun-betebeharra

Bere funtzioak utzi ondoren ere kontseilariak informazio konfidentzialak sekretupean gorde beharko dituzte. Era berean, kargua betetzearen ondorioz ezagutzen dituzten datuak, txostenak edo aurrekariak isilpean gordeko dituzte eta ezingo dizkiete hirugarrenei jakinarazi edo ezingo dituzte hedatu, horrek Sozietatearen intereserako ondorio kaltegarriak izan baditzake.

26. artikulua Gardentasunaren eta informazioaren betebeharra

Kontseilarien betebeharra da Sozietateari garaiz jakinaraztea erabakiak hartzerako orduan Sozietateari eragin dakizkiokeen interes partikularrak.

Sozietateak hala eskatuta, kontseilariak Sozietateari jakinaraziko dizkio Sozietateen kapitalean dituen partaidetza guztiak, Sozietatearen xede soziala den jarduera-genero bera, antzekoa edo osagarria dutenak, bai eta Sozietatean betetzen dituen karguak eta funtzioak ere. Era berean, bere edo besteren kontura Sozietatearen xede soziala den jarduera-genero bera, antzekoa edo osagarria duten jarduerak gauzatzen dituen adieraziko dio. Eta, oro har, Sozietateko administrari den heinean, esanguratsua gerta daitekeen beste edozein gertakari edo egoera.

Halaber, kontseilariak Sozietateari jakinarazi beharko dizkio bere egoera profesionalean emandako aldaketa esanguratsuak, baldin eta kontseilari izendatu zenean emandako ezaugarrietan edo egoeran eragiten badute, edo interesen gatazka sor badezakete.

Gainera, bera inplikaturik dagoen edozein erreklamazio juridikoren, administratiboren edo bestelako erreklamazioen berri eman beharko dio kontseilariak Sozietateari, erreklamazioaren garrantzia dela-eta Sozietatearen izen onean eragin larriak izan dezakeenean.

27. artikulua Interes-gatazka

Leialtasun-betebeharrari jarraiki, kontseilariak ekidin beharko ditu interesen gatazka-egoerak, beraren eta berarekin loturiko pertsonen eta Sozietatearen artean. Ekidinezinak badira, horien berri emango dio Administrazio Kontseiluari. Bereziki:

- Zuzenean edo zeharka tartean gai horietan sartuta badago, kontseilariak ez du horiei buruzko gogoetetan parte hartuko.
- Kontseilariak ezin izango du zuzenean edo zeharka zerbitzu profesional edo komertzialengatiko transakziorik egin Sozietatearekin, aldez aurretik interesen gatazka-egoeraren berri eman eta Kontseiluak transakzioa onartu ezean.
- Kontseilariak ezin du bere edo berarekin loturiko pertsonen onurarako Sozietatearen negozio-aukerarik aprobetxatu. Inbertsioren edo eragiketa komertzialen bat egiteko sorturiko, edo kontseilariak betetzen duen karguarekin zerikusia duen edo Sozietatearen baliabideez nahiz informazioaz baliatuz aurkitutako edozein aukera hartuko da negozio-aukeratzat.

Kontseilariak Sozietatearekiko duten leialtasunari jarriki, presidenteari jakinaraziko diote edozein gehiegikeri edo ez betetzeren berri dutenean, bereziki informazio esanguratsu edo abantailatsuren erabilerari buruzkoa bada.

28. artikulua Sozietatearen izena erabiltzea

Kontseilariak ezingo du Sozietatearen izena erabili, ezta bertako administraria dela aipatu ere bere edo berarekin loturiko pertsonen kontura eragiketak egiteko.

29. artikulua Informazio ez-publikoa

Sozietatearen informazio ez-publikoa helburu pribatuetarako erabili ahalko dute kontseilariak, Sozietatearen kalterako ez bada.

30. artikulua Lotutako pertsona

1. Aurreko artikuluen ondorioetarako, administrariarekiko loturak dituzten pertsonatzat joko dira ondokoak:
 - a. Administrariaren ezkontidea edo antzeko lotura afektiboa duten pertsonak.
 - b. Administrariaren edo bere ezkontidearen aurreko ahaideak, ondorengoak eta neba-arrebak.
 - c. Administrariaren aurreko ahaideen, ondorengoen eta neba-arreben ezkontideak.
 - d. Sozietateak, baldin eta sozietate horietan administraria, zuzenean edo tarteko pertsona baten bitartez, Merkataritza Kodearen 42. artikulua lehenean jasotako egoeraren batean badago.

2. Administrari den pertsona juridikoari dagokionez, lotura duten pertsonatzat joko dira ondokoak:
- a. Bazkideak, baldin eta bazkide horiek Merkataritza Kodearen 42. artikulua lehen atalean jasotako egoeraren batean badaude administraria den pertsona juridikoarekiko.
 - b. Eskubidezko eta egitatezko administrariak, likidatzaileak eta administrari den pertsona juridikoaren ahalmen orokorrak dituzten ahalduak.
 - c. Talde bereko kide diren sozietateak eta haietako bazkideak.
 - d. Administrari den pertsona juridikoaren ordezkariarekiko loturadun pertsonatzat jotzen direnak, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera.

IX. KAPITULUA

KONTSEILARIAREN ESKUBIDEAK ETA AHALMENAK

31. artikulua Betebeharren irismena

Estatutuaren kapitulu honetan jasotzen dira kontseilariak Sozietatearekiko dituzten betebeharrak, eta analogiaz ulertuko da betebehar horiek ere aplikatuko direla Taldeko sozietateekin dituzten harremanetan. Era berean, Estatutuko kapitulu honetan jasotako betebeharrak exijitu ahalko zaizkie pertsona juridikoen ordezkari diren pertsona fisikoei.

32. artikulua Informazio- eta ikuskapen-ahalmenak

Sozietatearen edozein alderdiren gainean informazioa eskuratzeko, bere liburuak, erregistroak, dokumentuak eta eragiketa sozialen gainontzeko aurrekariak aztertzeko eta bere instalazioak ikuskatzeko ahalik eta ahalmenik zabalenekin inbestitua izan da kontseilaria.

Informazio-eskubidea eskumendeko Sozietateetara eta partaidetuetara zabaltzen da.

Sozietatearen ohiko kudeaketa ez nahasteko helburuarekin, presidenteak, presidenteordeak edo, hala badagokio, Kontseiluko idazkariak kanalizatuko ditu informazio-ahalmenak. Pertsona horiek kontseilariaren eskaerei erantzuna emango diete dagokion erakunde-mailarentzako hizketakide egokiak eskainiz edo neurriak erabakiz, nahi dituzten azterketa- eta ikuskapen-zuzemenak "in situ" praktikatu ahal izateko.

33. artikulua Adituen laguntza

Bere funtzioak betetzen dituen bitartean laguntza jasotzeko helburuarekin, edozein kontseilarik bere bileretara joateko lege-aholkulari, kontu eramaile, finantzario edo bestelako adituen laguntza kontrata edo eska dezake.



Halako laguntzaile bat eskatzeko, beharrezkoa da argitu nahi diren arazoak gutxieneko munta eta konplexutasun maila izatea, eta karguaren jardunean agertutakoak izatea.

Kontratatzeko erabakia Kontseiluko presidenteari jakinarazi beharko zaio, zeinek betoa jar dakioken ondokoa egiaztatzen bada:

- a. Ez da beharrezkoa agindutako funtzioak behar bezala gauzatzeko.
- b. Kostua ez da arrazoizkoa arazoak duen garrantzia ikusita.
- c. Sozietateko aditu eta teknikoek modu egokian eman dezakete eskatutako laguntza teknikoa.

34. artikulua Kontseilariaren ordainsaria

Kontseilariak ez dute ordainsaririk jasoko beren kargua betetzeagatik.

Sozietateak erantzukizun zibileko seguru bat kontratatuko du haren kontseilariarentzat.

X. KAPITULUA GOBERNU KORPORATIBOA

35. artikulua Gobernu korporatiboaren txostena

Administrazio Kontseiluak gobernu korporatiboari buruzko informazioa jakitera eman beharko du urtero egiten den jarduera-txostenean.

Aipatu txostenak Sozietatearen gobernu-sistemaren egituraren eta praktikan nola funtzionatzen duenaren azalpen xehatua jaso beharko du. Nolanahi ere, ondokoa izango da gobernu korporatiboaren txostenaren gutxieneko edukia:

1. Sozietatearen jabetza-egitura.
2. Sozietatearen administrazio-egitura, Administrazio Kontseiluaren osaketa, antolaketa-arau eta funtzionamenduari buruzko eta kideen nortasunari eta ordainsariari buruzko informazioarekin.
3. Arriskua kontrolatzeko sistemak.
4. Batzar Nagusiaren funtzionamendua, egiten diren bileren garapenaren gaineko informazioarekin.



5. Gobernu korporatiboak egindako gomendioak zein mailatan jarraitzen diren edo, hala badagokio, aipatu gomendioei jarraipena egiten ez zaiela azaltzea.

Gobernu korporatiboari buruz egingo den aurreneko txostena 2010eko ekitaldi ekonomikoari egokituko zaio.